

## Uztailaren 13an udako lehen San Telmo Gauda ospatuko du museoak, “Hello, Robot” erakusketa ardatz izango duena

*San Telmo Museoa San Telmo Gauda antolatuko du “Hello, Robot. Diseinua gizakiaren eta makinaren artean” erakusketa ardatz hartuta uztailaren 13an. 20:30etik 24:00etara erakusketa, eliza eta klaustroa zabalik egongo dira eta musika robotiko saioa eskainiko du Jonathan García Lana “Tunipanea”k*

San Telmo Museoaren udako eskaintzan ohiko hitzordua bilakatu dira San Telmo Gaudak, museoaz eta erakusketez beste era batera gozatzeko aukera. Hain zuzen ere, larunbat honetan, uztailak 13, uda honetako lehena izango da, *Hello, Robot. Diseinua gizakiaren eta makinaren artean* erakusketaren inguruan antolatutakoa. 20:30etik 24:00etara, erakusketa, eta museoko eliza eta klaustroa irekita egongo dira eta taberna zerbitzuarekin. Sarrera doakoa izango da edukiera bete arte.

San Telmo Gau honen berezitasuna musika izango da, izan ere, erakusketarekin lotura eginez, musika robotiko saioa egongo da: Jonathan García Lanak, *Tunipaneak*, bere azken obra aurkeztuko du. Berariaz elizako espazio zentralerako egindako pieza da, non musika mekanismo elektromekaniko batek, automata batek, igorriko edo interpretatuko duen. Bere lanean eraikinaren akustikarekin jokatzeko du, eta publikoaren eta artelanaren arteko harreman bideak aztertzen ditu. Hala, entzumen klasikoarekin hausten du.

Musika saio hau entzuteko aukera 20:30etik 24:00etara egongo da etenik gabe.

### Jonathan García Lana a.k.a. Tunipanea (1985, Hasselt, Belgica)

Bilbon bizi den artista honek ibilbide luzea dauka soinu artearen alorrean, eta familia guztietako musika tresna esperimentalak eraikitzen ditu.

Arte Garaikidean, Teknologikoan eta Performatiboan (UPV/EHU) masterra egindakoa, bere ikerketa independentearen helburua da eguneroko teknologiaren erabilerari beste esanahi bat bilatzea, hala adierazkortasunerako tresna gisa erabiltzeko, nola gizarte eraikuntzarako mekanismo bezala.

Bere soinu artefaktuak sortzen ditu aurkitutako objektuetan, osagai elektronikoetan eta material industrialetan oinarrituta, eta osagai emozionala gehitzen die aukera berriak sortzeko eta teknologiaren erabilera garaikidearen inguruko galderak ahalbidetzeko.

Bere ikerketa gehienak praktikoak dira eta emaitza publiko orokorrari begirako jarduera anitzak dira, gehienetan, zuzenekoak, lutheria esperimentaleko tailerrak eta erakusketak. Egun, Bilbao Ekintzaren BIAD programari esker, denbora gehiena Lutiteka proiektuari eskaintzen dio; bere oinarria da ezohiko musika tresnen mailegurako liburutegia.

## *Hello, Robot* erakusketa, irailaren 29ra arte

Azken urteotan robotikak gure egunoroko bizitzan bere lekua egin du baita aldaketa garrantzitsuak eragin ere, dela drone, sentsoare edo 4.0 industria moduan. Prozesu honetan, diseinuak zeresan handia du, diseinatzaileak direlako makinen eta gizakien arteko interfazak sortzen dituztenak.

*Hello, Robot. Diseinua, gizakiaren eta makinaren artean* Vitra Design Museum, Mak Vienna eta Design Museum Gent-en erakusketa da eta lehenengoz jorratzen du robotikaren egungo booma, modu sakonean.

200 objektutik gora biltzen ditu, artea eta diseinuaren alorretakoak, tartean etxerako, zaintzarako eta industriarako erabiltzen diren robotak, hala nola ordenagailu jokoak, komunikabide instalazioak, eta robotak agertzen diren liburu eta filmen adibideak. Robotikak gaur egun hartzen dituen forma anitzak erakusten ditu eta aldi berean, mahai gainean jartzen ditu robotikarekin lotuta sortzen diren kezka sozialak, politikoak eta etikoak.

## *El 13 de julio el museo celebrará la primera San Telmo Gauda de este verano, dedicado a la exposición "Hello, Robot"*

*El Museo San Telmo ha organizado el 13 de julio la San Telmo Gauda dedicada a la exposición "Hello, Robot. El diseño entre el humano y la máquina". De 20:30 a 24:00 la exposición, la iglesia y claustro estarán abiertos y Jonathan García Lana, "Tunipanea", ofrecerá una sesión de robótica musical*

San Telmo Gauda se ha convertido en una de las actividades fijas del museo en verano, una oportunidad para disfrutar de manera diferente del museo y sus exposiciones. Precisamente, este sábado, 13 de julio, se celebrará la primera de este verano, que tendrá como eje central la exposición *Hello, Robot. El diseño entre el humano y la máquina*. De 20:30 a 24:00 la exposición, la iglesia y claustro del museo estarán abiertos, y habrá servicio de bar. La entrada será libre hasta completar aforo.

La singularidad de esta San Telmo Gauda residirá en la música, ya que haciendo referencia a *Hello, Robot* habrá una sesión de robótica musical de la mano de Jonathan García Lana, *Tunipanea*, que presentará su última obra. Es una pieza exclusiva diseñada para el espacio central de la iglesia, donde los sonidos emitidos o interpretados por los diferentes mecanismos electromecánicos dialogarán con la impresionante acústica de la arquitectura. La propuesta explora la relación entre la persona oyente y la obra, y rompe con la escucha clásica.

Esta sesión de música se podrá disfrutar desde las 20:30 hasta las 24:00 ininterrumpidamente.

### **Jonathan García Lana a.k.a. Tunipanea (1985, Hasselt, Bélgica)**

Máster en Arte Contemporáneo, Tecnológico y Performativo (UPV/EHU), es un artista asentado en Bilbao que trabaja principalmente en torno al medio sonoro. Desarrolla su investigación independiente resignificando los usos de la tecnología cotidiana como herramienta expresiva y mecanismo de construcción social.

Construye e interpreta sus propios artefactos sonoros a partir de objetos encontrados, componentes electrónicos y materiales industriales, agregando el ingrediente emocional necesario para generar nuevas posibilidades y preguntas en torno al uso tecnológico contemporáneo.

La mayoría de sus investigaciones son prácticas y derivan en diversas actividades de cara al público, generalmente en forma de eventos en directo, talleres de luthería experimental y exposiciones. Actualmente y gracias al apoyo de Bilbao Ekintza a través del programa BIAD, dedica gran parte de su tiempo al proyecto llamado Lutiteka, cuyo núcleo es una biblioteca de préstamo de instrumentos musicales inusuales.

## *Hello, Robot. El diseño entre el humano y la máquina, hasta el 29 de septiembre*

Ya sea en forma de dron, sensor o industria 4.0, en los últimos años la robótica ha tomado su lugar en nuestro día a día y ha generado grandes cambios. En este proceso el diseño tiene mucho que decir, porque son los diseñadores quienes crean las interfaces entre el humano y la máquina.

*Hello, Robot. El diseño entre el humano y la máquina* es una exposición de Vitra Design Museum, MAK Vienna y Design Museum Gent, y por primera vez aborda en profundidad el boom actual de la robótica.

Expone más de 200 objetos del ámbito del arte y el diseño; entre ellos, robots utilizados en los hogares, en los cuidados y en la industria, como por ejemplo, juegos de ordenador, instalaciones de comunicación, y ejemplos de libros y películas en los que aparecen robots. Muestra las diversas formas que adoptan la robótica, y al mismo tiempo pone sobre la mesa las preocupaciones sociales, políticas y éticas que surgen vinculadas a ella.